

Ramiro Gonzálezek Navaridasen eta Lezan lurralde osoan kalitatezko zerbitzuak eta azpiegiturak bermatzeko Foru Planaren zeregina nabarmendu du

Arabako diputatu nagusiak eta Lurralde Oreekako eta Lurralde Antolaketako diputatuak Navaridasen egindako eta gaur egun Lezan martxan dauden hiri-berrikuntzako obrak bisitatu dituzte

Bi jarduketetarako aurreikusitako inbertsioa 400.000 eurotik gorakoa da

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 3a. Ramiro Gonzalez Arabako diputatu nagusia eta Laura Pérez Borinaga Lurralde Oreekako eta Lurralde Antolaketako diputatua Navaridasen eta Lezan izan dira asteazken honetan, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bidez finantzatutako hiri-azpiegiturak berritzeko jardueren emaitza eta bilakaera ezagutzeko.

Bisita diputatu nagusiak lurraldeko udalerrri eta kontzejuekin egiten dituen topaketetan kokatzen da, haien proiektuak, beharrak eta lehentasunak bertatik bertara ezagutzeko.

Ramiro Gonzalezek Arabako Foru Aldundiaren eta toki-erakundeen arteko lankidetzaren garrantzia azpimarratu du, pertsona guztiek, edozein lekutan bizi direla ere, kalitatezko zerbitzu publikoak eta azpiegiturak izan ditzaten bermatzeko. "Obra eta Zerbitzuen Foru Plana Arabak lurralde-koehesioan aurrera egiteko duen tresna nagusietako bat da. Gure herriei funtsezko inbertsioak egiteko aukera ematen die, eta, kasu askotan, zaila izango litzateke inbertsio horiek beren baliabideekin bakarrik egitea ", adierazi du diputatu nagusiak.

Hiri-berrikuntza Navaridasen

Navaridasen, bisitatutako jarduketa Eras de Abajo kaleko hiri-azpiegiturak berritzeko eta zoladura jartzeko bigarren faseari dagokio. Lanak amaituta daude, eta 241.490,51 euroko foru-laguntza dute. Kopuru horretatik, 197.921,48 euro Obra eta Zerbitzuen Foru Planari dagozkio.

Lezan, foru ordezkariak El Campillo Bidea eta Iparra kaleetako zoladura eta azpiegiturak berritzeko bigarren fasearen garapenaren berri izan du. Lanak egiten ari dira gaur egun, eta 150.942,91 euroko dirulaguntza dute.

Bi proiektu horiek 2022-2023 Foru Planean garatutako urbanizazio-obrei jarraipena ematen diete. Esku-hartzeek euri-uren eta ur beltzen saneamendu-sare bereizleak ezartzea, hornidura berritzea, azpiegitura elektrikoak eta telekomunikazioetakoak lurperatzea, argiak ordezte eta zoladura hormigoizko akaberaren bidez berritzea aurreikusten dute.

Diputatu nagusiak azpimarratu duenez, jarduera horiek "ez dira zolatze-lanak soilik, baizik eta esku-hartze integralak, oinarrizko zerbitzuak modernizatzen dituztenak, irisgarritasuna hobetzen dutenak eta gure herrietan bizi direnen ongizateari zuzenean laguntzen diotenak". Gonzalezek

gaineratu du Obra eta Zerbitzuen Foru Plana bezalako programek aukera ematen dutela epe ertain eta luzerako inbertsioak planifikatzeko, toki entitateek helarazitako beharrei erantzuteko eta lurralde historiko osoaren garapen orekatua bultzatzeko.